

Literatura Unibertsala Urretxindorra ikastolan: gozamenerako tresna

ANTTON IRUSTA

Literatura Unibertsala irakasgaiaren bidez, jasotako prestakuntza literario eta humanistikoa zabaldu nahi dugu Urretxindorra ikastolan.

Hasteko, aipa dezagun Arteen modalitateetan dabilzan Batxilergoko ikasleek aukeratu izan dutela irakasgai hori, beren nortasuna sendotu eta munduaz duten ikuskera berezia sakondu ahal izateko.

Bost urte daramagu jo eta su, joanean-joanean, Batxilergoko bigarren urteko ikasleekin literatura unibertsala lantzen, eta esan dezakegu bene-benetan literaturak gazteen heldutasun intelektual, estetiko eta afektiboan beren esperientziak ikusteko aukera ematen diela.

Zergatik? Literatura-testuek pentsaera eta sentipen kolektiboak adierazten dituzte,

eta kultura bakoitzak bere historiako garai bakoitzean zituen berezitasunak ulertzen lagundu die ikasleei.

Guk zerrenda bakar batean jaso ditugu irakasgai honetako edukiak, eta, ikastolan, erabateko autonomia izan dugu programazio didaktikoa egiterakoan.

Baina hori guztia ez zen izango *Literatura unibertsala*, *Batxilergoa 2* izeneko liburua esku artean eduki izan ez bagenu.

Eusko Jaurlaritzaren eta EIZIEren arteko hitzarmenaren barnean kaleratu da liburua, eta honako ezaugarri hauek ditu:

- a) Prozedurak, kontzeptuak eta jarrerak txukun antolatuta daude, eta edukien zerrenda bat dator selektibitateko gaitegiarekin.

- b) Jarrerazko eta prozedurazko edukiak, zeharkakoak izanik, programazioak antolatzeke ardatz gisa hartu dira.
- c) Kontzeptuzko edukiak, berriz, kronologikoki egituratu dira, eta ibilbide historikoa osatzen dute gure kulturako literatura-kanonetan zehar.
- d) Ardatz kronologikoari esker, erraz lot daitezke literatura-lanak eta lan horiek sortu dituzten testuinguruak.
- e) Irakasgaia modu orokor eta irekian aurkezten da, hizkuntza, nazionalitate edo genero bakar bati lotu gabe.
- f) Bestalde, kontzeptuzko edukiak bost etapatan antolatu dira: Antzinaroa, Antzinaro klasikoa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.

Batxilergoko ikasgaien curriculumean, literatura unibertsalaren ikas- eta irakas-prozesua honako hiru jarduera hauetan oinarritzen da: literatura-testuen irakurketa, ikerlanak eta ahoz zein idatziz egindako iruzkinak.

Jarduera horiek egiteko ikuspeirik egokiena komunikazio-ikuspegia da, baita irakasgai honetan ere, eta liburu honek, hain zuzen ere, betetzen ditu baldintza horiek guztiak, ikasgela eztabaidagune bihurtzen duen heinean.

Liburuaren ekarpena oinarrizko gaitasunak eskuratzeari begira

Literatura Unibertsala irakasgaiak curriculumeke oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen du. Hala ere, modalitateko irakasgaia denez, Arteen modalitatearekin eta Giza eta Gizarte Zientzien modalitatearekin

zerikusi zuzena duten oinarrizko gaitasunak lantzen ditu bereziki.

Irakasgai honetan, literatura unibertsaleko literatura-lanik garrantzitsuenetakoak irakurri, interpretatu eta balioesten dira LIBURU HORREN BITARTEZ, eta ikasleek aukera dute beren ingurunetik edo garaitik urrun dauden errealitateak ezagutzeko, kultura-tradizioan barneratzen joateko, eta gizakion jokamoldeaz hausnartzen laguntzeko. Era berean, literatura hizkuntzak dituen aukeren adierazpide goren da, eta aukera horiei buruz gogoeta egiten ere laguntzen du liburuak.

Bestalde, literatura ulertzeko eta aztertzeke trebeziak eta estrategiak —irakasgaiaren aztergai berezia— beste esparru batzuetan ere erabil daitezke. Era berean, literatura-testuak aztertzeke kontzeptuzko edukiak ere balia daitezke horretarako. Horregatik, ikasleak hainbat eta hainbat literatura-testu aberats izango ditu eskura, bibliografia sakon eta ugari batekin.

Liburuaren helburuak

Literatura Unibertsala liburuak, etapa honetan, honako gaitasun hauek lortzea du helburu:

1. Literatura-testuak edo pasarte garrantzitsuak irakurtzea esanahiaz jabetuz, irakurtzeke ohitura autonomoa garatu eta literatura irakurtzen ikasteko.
2. Literatura-testu osoak edo pasarte esanguratsuak irakurtzea eta interpretatzea.
3. Literatura-testu osoetatik edo pasarte esanguratsuetatik abiatuta, literatura

- unibertsala osatzen duten mugimendu estetikoetako generoen eta idazlan eta egile garrantzitsuenen ezaugarriak ezagutzea.
4. Idazlan esanguratsuak irakurriz eta alderatuz, historian zehar behin eta berriz agertzen diren gaiak identifikatzea eta haiei buruz jardutea.
 5. Literatura unibertsaleko lanen eta bestelako arte-adierazpenen (musika, zinema...) arteko harremanak aztertzea —adibide esanguratsuak erabiliz—, ikusteko zein diren adieramolde horien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.
 6. Literatura unibertsaleko lanak ulertzeko, beste irakasgai batzuetan literaturaz ikasitakoa modu autonomo eta kontzientean erabiltzea.
 7. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta bibliografia-iturriak modu kritiko, autonomo eta eraginkorrean erabiltzea, literatura-gaiei buruzko informazioa lortu, interpretatu eta aztertzeko.
 8. Literatura-testuen gaineko ariketa akademikoak egiteko eta ezagutzak eskuratzeko behar diren jardueretan parte hartzea, modu aktibo eta egokian, eta gogoeta eginez.
 9. Plangintza bati jarraituz, ahozko nahiz idatzizko hitzaldiak prestatzea, esparru akademikoko hainbat helburutarako egokiak diren literatura-gaiei buruzko lanak aurkezteko; hitzaldi horiek modu kritikoa berrikustea, komunikatzeko eraginkorra goak izan daitezten.
 10. Literatura-testuak kritikoki balioestea, banaka nahiz taldeka egindako sorkuntzak eta sentipenak direla ulertzeko.
- Bihoazkie liburuaren egileei eta EIZIEko lagunei gure eskerrak, egin duten liburu txukun eta atseginagatik.

Resumen

En este artículo, el profesor Antton Irusta explica la experiencia que llevan desarrollando durante cinco años en la ikastola Urretxindorra con el libro de texto *Literatura Unibertsala, Batxilergoa 2*. El libro vio la luz en 2012, de la mano de la editorial Erein y de la asociación EIZIE, gracias a la ayuda del Gobierno Vasco. En opinión del autor, es una experiencia muy positiva, porque, entre otros aspectos, la literatura ofrece al alumnado la posibilidad de contrastar sus experiencias dentro del proceso de maduración intelectual, estético y afectivo, así como de conocer realidades lejanas en el espacio y en el tiempo, para poder ir introduciéndose en la tradición cultural, al tiempo que les ayuda a reflexionar sobre el comportamiento humano.

Résumé

Dans cet article, le professeur de littérature Antton Irusta rapporte son expérience de cinq ans à l'ikastola Urretxindorra où il utilise dans ses cours l'ouvrage intitulé *Literatura Unibertsala, Batxilergoa 2*. Ce manuel scolaire parut en 2012 chez la maison d'édition Erein, en collaboration avec l'association EIZIE –qui promeut la traduction en basque des œuvres de la littérature universelle– et avec l'aide financière du Gouvernement Basque. Selon l'auteur de cet article, il s'agit d'une expérience très positive, car la littérature offre aux élèves la possibilité de contraster leurs expériences dans le cadre de leur processus de maturité intellectuelle, esthétique et affective, ainsi que de connaître des réalités lointaines dans l'espace et dans le temps, leur permettant d'assimiler la culture à la tradition et de réfléchir sur le comportement humain.

Abstract

In this article, professor Antton Irusta discusses the very positive experience of using the textbook *Literatura Unibertsala: Batxilergoa 2* [*Universal Literature: High School 2*] for the last five years at Urretxindorra School. The book was first published in 2012 by publishing house Erein in collaboration with EIZIE, and with assistance from the Basque Government. In the author's opinion, the experience has been memorable because, among other things, literature allows the students to compare their own experiences within the process of their intellectual, esthetic, and affective maturation, such as by becoming familiar with realities that are distant in both space and time. This in turn helps them to enter their cultural tradition and learn to reflect on human behavior.